



Egoera ekonomikoa eta Merkatuak **ASTEKO LABURPENA**

2019ko martxoaren 4tik 8rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: EBZ

HAZKUNDEAREN ETA INFLAZIOAREN BALIOESPENA

	PIB		Inflación	
	mar-19	dic-18	mar-19	dic-18
2019	1,1%	1,7%	1,2%	1,6%
2020	1,6%	1,7%	1,5%	1,7%
2021	1,5%	1,5%	1,6%	1,8%

Datuaren analisisia


steon, **EBZren bilera** egin zen, eta erakundeak interes-tasak bere horretan mantentzeko erabakia hartu zuen, 2019aren amaierara arte bederen. Gainera, TLTRO berri bat iragarri zuen (finantza-kundeei loturiko maileguen programa), 2019ko irailean hasi eta 2021eko martxoan amaituko dena, 2 urteko mugaegunarekin. Aurreikuspenei dagokienez, Draghik aurtengo BPGd-aren berapen handi bat iragarri zuen (% 1,7tik % 1,1era), 2020koak eta 2021ekoak egonkorrago antenduz. Inflazioari begira, ekitaldi guztietan murrizketa handi bat egongo dela adierazi zuen, bertangoan batez ere. Gauzak horrela, 2019ko aurreikuspenak % 1,6tik % 1,2ra igaro ziren, 2020koak % 1,7tik % 1,5era eta 2021ekoak % 1,8tik % 1,6ra.

Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentrala Euroguneko 19 estatu kideen diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta Euro-zona baten diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak ere bultzatu beharko ditu, haren helburuak bete behar izan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-lazionista bati eustea.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: BPGd / ESKARI INDUSTRIALAK ALEMANIAN



Datuaren analisisia

18ko laugarren hiruhilekoan, **barne-produktu gordina** % 0,2 igo zen **Eurogunean**, eta % 0,3 ropar Batasun (EB) osoan, etxebizitzaren kontsumoaren handitzeak eta kanpo-sektoreak junduta. 2017ko hiruhileko berarekin alderatuz, hazkundea % 1,1ekoa izan zen txanpon karraren herrialdeetan, eta % 1,4koa hogeita zortzietan.


stalde, **Alemaniano eskari industrialek** azken zazpi hiletako jaitsierarik handiena izan zuten arrilean. Datuak % 2,6 egin zuen behera ustekabeen, analistek espero zuten % 0,5eko rakadatik urrun.

Adierazlearen azalpena

irrostatek argitaratzen du Barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta zkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Euroguneak ekoizten uen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean registratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztikoak izan behar dute, la enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



Datuaren analisia


Estatu Batuetako **langabezia-tasak** % 3,8 egin zuen behera otsailan, urtarrilean baino bi hamarren itxiago, eta, beraz, datuak azaroan lortutako (% 3,7) eta 1969tik ikusten ez zen minimo historikotik urbil jarraitu zuen. Langabezia-tasaren beherakadari kontrajarriz, enplegu berrien datua. Izan ere, otsailan, Estatu Batuetako ekonomiak **nekazaritzakoak ez diren 20.000 enplegu** baino ez zituen irabaztu, urtarileko 311.000 enpleguen aldean, nagusiki sektore guztien uzkurduraren moteltzeak eta enpleguaren suntsitzeak eraginda. **Soldatak**, bestalde, % 3,4 igo ziren urtean, erakurketarik onena ekonomiaren susperraldia hasi zenetik, duela hamarkada bat jada.

Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilerok argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-erakatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu daiteke. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

IXINA: BALANTZA KOMERTZIALA



Datuaren analisisia


inako **Balantza Komertzialak** 4.120 milioi euroko superabita izan zuen otsailean. **Esportazioak** 20,7 murriztu ziren iaztik, jaitsierarik handiena 2016ko otsailetik. Izan ere, % 4,8ko beherakada pero zen, urtarriean % 9,1eko ustekabeko igoeraren ostean. **Inportazioak**, bestalde, % 5,2 jaitsi en iaztik, aurreikusitako datua baino kaskarragoa eta aurrekoa baino gutxiago.

Adierazlearen azalpena

Ilantza komertzialaren saldoa esportazioen eta inportazioen arteko aldea da, hau da, herrialde tean ekoitzi eta kanpoan saltzen diren ondasunen eta zerbitzuen balioaren eta beste herrialde tean ekoitzi eta erosten direnen balioaren arteko aldea. Saldoa negatiboa denean defizit mertziala ematen dela esaten da, hau da, esportazioen balioa inportazioena baino txikiago an; superabit komertziala, ordea, esportazioen balioak inportazioena gainditzen duenean aten da. Adierazle ekonomiko hori herrialde baten ordainketen balantzako osagai bat da.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

IAPONIA: BPGd



Datuaren analisisia

poniako ekonomia hasieran aurreikusitakoa baino azkarrago hazi zen laugarren hiruhilekoan, kar suspertu baitzen aurreko hiruhilekoko hondamendi naturalek eragindako kapital-gastutik. **irne-produktu gordina** % 1,9ko tasa urtekotuan igo zen urria eta abendua bitartean. Datua alistik aurreikusitakoaren gainetik egon zen, % 1,8ko hazkundera espero baitzuten.

Adierazlearen azalpena

irne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko abiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen ken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean registratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztitakoak izan behar dute, la enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
03/11	Alemania	Hileko SA industria-ekoizpena	% 0.5
03/11	Alemania	Balantza komertziala	15.2b
03/11	Espainia	Urte arteko xehekako salmentak	--
03/11	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratuak	% 0.0
03/11	Estatu Batuak	MoM txik. salmentak autorik gabe	% 0.3
03/12	Erresuma Batua	Balantza komertziala	-Â£3500m
03/12	Erresuma Batua	Hileko industria-ekoizpena	% 0.2
03/12	Erresuma Batua	BPGd (MoM)	% 0.2
03/12	Estatu Batuak	Hileko KPIa	% 0.2
03/13	Espainia	Hileko KPIa	% 0.2
03/13	Eurogunea	Hileko SA industria-ekoizpena	% 1.0
03/13	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	-% 0.5
03/13	Estatu Batuak	Hileko gastua eraikuntzan	% 0.4
03/14	Txina	YTD YoY industria-ekoizpena	% 5.6
03/14	Txina	SA YoY xehekako salmentak	% 8.2
03/14	Alemania	Hileko KPIa	% 0.5
03/14	Frantzia	Hileko KPIa	% 0.0
03/14	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	225k
03/14	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	% 0.2
03/15	Eurogunea	YoY azpiko KPIa	% 1.0
03/15	Eurogunea	Hileko KPIa	% 0.3
03/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	10.0
03/15	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0.4
03/15	Estatu Batuak	Gaitasunaren erabilera	% 78.5
03/15	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	95.5
03/15	Japonia	BOJen politikaren oreka mota	--

JRTSA:

Alaren astea munduko burtsetan. ELGE eta EBZren zikunde aurreikuspenen beherakadak eta Txinako portazioen datu txarrak munduko hazkundearen jeltzearen inguruko beldurrak berpiztu zituen. Asteon, 3Zren bilera egin zen, eta erakundeak interes-tasak ez jteko erabakia hartu zuen, 2019aren amaierara arte derren. Gainera, aurtengo irailean hasiko den hirugarren .TRO bat merkaturatuko zuela iragarri zuen, 2 urteko gaegunarekin. Aurreikuspenei dagokienez, Draghik rtengo BPGd-aren beherapen handi bat iragarri zuen (% 7tik % 1,1era), 2020koak eta 2021ekoak egonkorrago antenduz. Inflazioari begira, ekitaldi guztietan murrizketa ndi bat egongo dela adierazi zuen, aurtengoan batez ere. .GEK ere beherantz berrikusi zituen munduko zikundearen aurtengo aurreikuspenak, % 3,6tik % 3,3ra, in zuzen ere. Txinak, bestalde, legebiltzar-urtearen sieran, aurtengo hazkunde-helburuen beherakada bat garri zuen (% 6-% 6,5), baita herrialdearen dezelerazioa ntzeko pizgarri ekonomikoak ere. Erreferentzia makroei gokienez, Txinako esportazioek azken hiru urtetako herakadarik handiena izan zuten, Alemaniako eskari lustrialak ustekabean jaitsi ziren eta AEBetako enpleguaren ostenak lan-merkatuaren motelaldia islatu zuen.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
MSCI WORLD (Local)	1.573,27	-1,84	9,15
IBEX 35	9.129,30	-1,49	6,90
DJ EURO STOXX 50	3.283,60	-0,86	9,40
DJ STOXX 50	3.028,30	-0,27	9,72
FTSE	7.104,31	-0,03	5,59
S&P 500	2.743,07	-2,16	9,42
Dow Jones	25.450,24	-2,21	9,10
NASDAQ	7.408,14	-2,46	11,65
NIKKEI 225	21.025,56	-2,67	5,05
MSCI GORAKORRAK (Lo	57.011,38	-1,54	6,72
MEXBOL	41.586,70	-2,42	-0,13
BOVESPA	95.364,85	0,80	8,51
SHANGHAI	3.110,39	-0,81	19,11
Errusia Rts Mosku	1.179,58	-0,65	10,64

ERRENTA FINKOAK:

3Zk tasen igoeren eta hazkunde ekonomikoaren rreikuspenak murriztu zituen, eta horrek eragin nabarmena an zuen Europa eta AEBetako gobernuen kurbetan. artara, hamar urterako bonu alemaniarraren rentagarritasunak 11 op egin zituen atzera, % 0,07raino, eta rmar urterako tasa amerikarra, aldiz, 12 op jaitsi zen, % 63raino. Zor espainiarrari dagokionez, hamar urteko bonuari katutako errentagarritasunak 15 op egin zituen behera, % 05eraino, eta arrisku-prima 98 puntutara murriztu zen. edituak, bestalde, diferentzialak handitu zituen.

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,53	-0,03	0,08
ESPAINIA 2 URTE	-0,31	-0,06	-0,07
AEB 2 URTE	2,46	-0,09	-0,03
ALEMANIA 10 URTE	0,07	-0,11	-0,17
ESPAINIA 10 URTE	1,05	-0,15	-0,37
AEB 10 URTE	2,63	-0,12	-0,06
ALEMANIA 30 URTE	0,71	-0,10	-0,16
ESPAINIA 30 URTE	2,32	-0,13	-0,30
AEB 30 URTE	3,01	-0,11	0,00
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/23	64,43	1,89	-23,94
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/23*	289,78	10,83	-63,91

BISAK / LEHENGAIK:

iroak indarra galdu zuen Euroguneko hazkunde rreikuspenek behera egin ondoren. Bada, Europako dibisak lioa galdu zuen dolarraren eta yenaren aurrean. Liberarekin teratuta, aldiz, balioa irabazi zuen, Brexitaren inguruko berri hiagoren zain. Lehengaietan, berriz, petrolioaren prezioa % 35 igo zen. Izan ere, AEBek eta Txinak akordio komertzial t lortzeko itxaropenak pisu gehiago izan baitzuen AEBetako trolio gordinaren erreserben gorakadak baino. Urrearen lioak, bestetik, % 0,39 egin zuen gora, 1.298,40 \$/ontza ailarraino.

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Dolarra / Euroa	1,12	-1,10	-1,85
Yena / Euroa	124,81	-1,93	-0,64
Libera / Euroa	0,86	0,39	-3,83

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Petrolio (Brendt)	65,16	1,35	22,55
Urrea	1.298,40	0,39	1,24



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.